

# CDR: terrorismo berririk bada?

**Jon Mirena Landa**

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen EHuko Unesco katedraren zuzendaria

**I**railaren 23an bederatzita lagun atxilotu zituzten Barzelonan, CDR talde berezitu baten partaidea gisa, beste akusazioen artean terrorismo delituak leporatuta.

Ikerketaren zati batzuk ezagutzera ematen ari dira, zatika. Ez da jakiten, beraz, zehatz-mehatz zein egitate leporatzen zaizkien akusatuei, sekretupean dago eta. Antza denez, urtebete baino gehiago begiepan zeuden atxilotuak, eta, orain, delituak gertatzeko zorian zeudelakoan gertatu dira atxilotetak.

Errugabetasun-presuntzioa serio hartuko bagenu, ezingo genuke terrorismoaz hitz egin: ez egunkarietan, ezta oro har eztabaida publikoan ere, harik eta hori gutzia behin betiko epai (irimo) baten bitartez behar bezala eta argudio sendoz frogatua izan arte; are gutxiago erabaki, alderdien arteko dinamikan, batzuek besteei «kondena» eskatzeko. Zeren kondena?

Zarata honen guztiaren artean ez da erraza azterketa hotz eta taxuzkoa egitea, eta nik kasu honetan, ezagutzera eman diren aztarnekin, soil-soilik ekingo diot terrorismo-delitu bategatik akusazioaren gaineko bidegarritasunari buruzko hausnarketa egiteari.

Edozein delitutan bi alderdi nagusi frogatu behar dira: jarduera «objektibo» bat (pertsona bat tirokatzea; sexu-ukituak egitea emakume bati; gauza batzuk etxebizitza batetik hartzea...) eta alderdi «subjektibo»-a. Hau da, zer egin zen eta zein asmoz. Edward Coke legelari ingelesak jada XVI. mendean ezarri zuen moduan: ez dago jarduera kriminalik, asmo kriminalekin batera ez badator (*actus non facit reum nisi mens sit rea*). Bi alderdiak aztertu behar dira, eta biak gertatzen direnean soilik, Estatu demokratikotan, abiapuntua dugu zuzenbide penalari bidea emateko. Europako tradizio kontinentalari helduta: *cogitatio poenam nemo patitur*. Alegia, pentsamenduak ez du delituri egiten.

Aipatu printzipioa ez da printzipio-etako bat beste batzuen artean: zuzen-

bide penal zilegiaren muina baizik. Delitua definitzeko orduan edo hura aplikatzeko eta frogatzeko bidean aipatu oreka, alderdi objektibo eta subjektiboaren artekoa, galtzen bada, injustizia eta abusua nagusitzen dira. Bi alderdiok halabarrez epaieketa justu baten osagai ditugu: giza eskubideak.

Terrorismo delituen definizioaren azken lege aldaketa funtsezkoa 2015eko lege organiko (2/2015, Martxoaren 30eko) baten bitartez gertatu zen, Zigor Kodearen 571. artikulua eta hurrengoak sakonki aldatuz. Eta hor aipatu oreka erabat suntsitu zen: «Benetako terrorismoa» eta «pentsamendu terrorista» nahastu ziren, parakatu ziren, alderdi objektibo delitua leporatzeko ia zeharo desageratu arte. Nola heldu zen horra? Saia gaitzen alderdi hau argitzen lau urratsetan.

Lehenengo urratsa: terrorismoa jada ez da jarduera kolektiboa. Terrorismoa hain da larria jarduera antolatua delako. Alegia, pertsona batzuk eginkizun berberarekin, hierarkiarekin, funtzio-banaketarekin. Taldeak ematen zion funtsa ekintza isolatu bat «izu iraunkor» bilakatzeari. Egiten den delitu bakoitza kate berberaren

katebegi bat dugu, eta horrek handiagotzen du mehatxua. Egungo legean, jada, aitzitik, terrorismo indibiduala izan daiteke.

Bigarrena: terrorismoaren helburuak kontaezinak dira. Terrorismoa orain helburuetatik identifikatzen da, eta horiek hainbeste dira eta hain dira zabalduak legean txertatzeko moduan, ezen ia dena helburu terrorista bilaka baitaiteke.

Hirugarren urratsa: terrorismoa frogatzeko moduak aldatu dira, eta gero eta pisu handiagoa dauka horretan txosten polizialak. Polizien txostena ia froga perizial bezala ulertzen da, eta beraien kontakizuna –ez gertatzen dena– prozesu guztiaren gogo dugu.

Beste era batera esanda: froga periziala bada aditu batek bere esparru zientifikoarekin lotuta ezagutzera ematen duena (balistika, kaligrafika...). Arazo da adituari, kasu honetan poliziarri, bere jakintzarekin zerikusi ez duen kontuetan aditu estatua onartzen bazaio, kontakizun «ideologiko» hutsari bidea ematen zaiola.

Laugarren urratsa (eta garrantzitsuena): alderdi objektibo eta subjektiboaren arteko «lotura» ez da jada frogatzen. Egitateetatik abiatu beharrean, ematen du helburu ideologiko eta politikoetatik abiatzen dela praktika forentse eta handik egitateen bila joaten da. Orduan, liburuak propaganda terrorista bilakatzeko dira; gasolina, lehergai; etxeko tresnak, lehergailuak sartzeko tapak. Neutroak diren hainbat ekintza eta gauzak (etxeko tresneria, boterearen aurreko desobediencia, jarduera ideologiko antolatua...) kolore terrorista hartzen dute kontakizun ideologiko batetik begiratura «delituak egiteko aurre-fase bat izan daitezkeelako».

Hortaz, zoritxarrez, pentsamendu hutsak delitu egiteki hurbilago gauden. Terrorismo delitua gaur dena izan daiteke, pentsamendu antinormatiboa –ad. independentistazale– hutsa bera ere, praxi forentsetik horri «kontakizun egokia» gehitzen bazaio. Zuzenbide penalak kasuotan, gorroto delituekin gertatu zen moduan, ematen du, errealtate aitortu eta kalifikatu beharrean, errealtate sortzailea dela. Neurri handi batean, ordea, gako epaileen esku dago: haiek bermeak estu ditzakete eta delituotako alderdi objektiboaren garrantzia eta zentralitatea berreskuratu. Egingo al dute?

**Alderdi objektibo eta subjektiboaren arteko «lotura» ez da jada frogatzen. Egitateetatik abiatu beharrean, ematen du helburu ideologiko eta politikoetatik abiatzen dela praktika forentse eta handik egitateen bila joaten da. Orduan, liburuak propaganda terrorista bilakatzeko dira; gasolina, lehergai; etxeko tresnak, lehergailuak sartzeko tapak**

**P**atu petrala kurdu herriarena. Turkiaren erasoak ez du ezuste handirik eragin. Erdoganengandik espero zitekeena da. Guztia, gutxi gorabehera, espero zitekeen moduan joan da. Lehenagotik ezagunak ziren lezioak berritu dizkigu gertatzen ari denak. Europan eragin ditzakeen sinpatiak gorabehera, gobernuak,



**JIRA**  
Angel Erro

haziaz baliatu ondoren, herri sinpatikoa eta bere unean baliagarria ataka txarrenean abandonatzeko prest egoten dira beti. Patu petrala herri txikiena, interes geoestrategiko handiagoren aurrean sakrifikatzaera deituak.

Indartsuari lagundu izana ez da aski, indartsuaren babesa jasotzeko bueltan; indartsuek indartsuak zilegitu ohi dituzte luzera, oreka mantentzeko amoreagatik. Turkiak mesfidatzen omen dira Europar Batasuna eta AEB, baina ez kontra egiteko beste. Berritu diguten beste irakaspen bat, terroristaren etiketa zein eraginikorra zaien estatu autoritarioei. Berrirakatsi digu estatubatuar administrazioaren aldakortasuna (ez esateagatik zuzenean traizioa: ez dago esaterik Trumpen etsaia ala aliatua izatek zer dakarren kalte handiagoa) eta europarraren menpekotasun kulpaduna; ezer berririk ez.

Ez genekiena zen, kontrakoa esan arren, jihadistak askatu eta alderri ibiltzea zeinen gutxi axola zaien.

## Altsasu

**G**urasok orain arte eutsi egin diote, baina hautsi egin dira. Hala esan du kazetariak preso dauden gazteetako baten aita, zuzenean, negarrez hasi denean. Harriztekoa da kazetariak berak nola eutsi dion. Negar egiteak ez omen du ezertarako balio, baina justiziak gehien maite duzuna urrutuntzen dizunean, zer gehiago egin dezakezu? Izugarria da Altsasuko zazpi gazteri gertatutakoa. Izugarria da goizaldean izandako borroka baten ondorioz kartzelan jarraitu behar izatea. Izugarria da errespetuaz hitz egitea sententziaren aurrean. Gurasoetako batek



**BIRA**  
Onintza Enbeita

azaldu du errespetatu eta jan egin beharko dutela epaileen erabakia. Nola jaten da hori, baina? Nola irensten du batek bere umeari gaztaroa lapurtuko diotela badaezpadako epaieketa baten ondoren?

«Gu faseka goaz», esan du guraso batek. Fase garrantza hasiko dute orain. Ezin izan diot negarrrari eutsi. Gure fase ona noiz etorriko ote den pentsatzen aritu naiz. Eta gogoratzen ditudan etaparik gehienak gogorak izan dira herri honetan.

Zazpi gazte akusatuta. Zazpi bizitza erditik moztuta. Zazpi etxetan ohe hutsak. Zazpi kuadrilla urrutira begira. Zazpi ligoteo gutxiago as-teburuero Altsasan. Zazpi ikasketa zailduta. Zazpi amets gaiztotuta. Zazpi gezur justiziaren gortean. Zazpi aitzo injustiziaren maha gainean.